

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

518

AGINDUA, 2017ko urtarrilaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, EAEko haurren 2017ko txertaketa-egutegiari buruzkoa.

Uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemako pertsonen eskubideen eta betebeharren adierazpena onartzekoa– aitortzen du Osasuna sustatzeko eta gaixotasunari aurrea hartzeko eskubidea: ingurune osasungarriak egokitzea, ohitura osasungarrietan heztea, txertoak jartzea, diagnostiko goiztiarra egitea eta arrisku-faktoreak kontrolatzea

Orobat, haurrei eta nerabeei lotutako osasun-laguntza espezifikoari dagokionez, osasun-agintaritzak proposatutako txertaketa-egutegian jasotako gaixotasun infektakutsagarrien aurka immunizatze eskubidea aitortzen zaie haurrei eta nerabeei.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren bidez ezartzen da Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzu komun en zorroa eta berau eguneratzeko prozedura; errege-dekretu horretan, txertaketa-egutegi horri dagokionez, lehen mailako atentzioko zerbitzu komun en zorroari buruzkoa den II. eranskineko jarduera prebentiboen artean aurreikusten dira, batetik, adin-talde guztien, eta hala dagokionean, arrisku-talde en txertaketa, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak eta eskumeneko osasun-administrazioek indarreko txertaketa-egutegiaren arabera onartuak, eta, bestetik, epidemiologikoki hala aholkatzen duten egoerak tarteko, herritar guztientzat edo arrisku-taldeentzat liratekeen txertoak.

Haurren lehenengo txertaketa-egutegia 1995. urtean onartu zuen Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak. Baina, ordutik, hainbat eguneratze egin dira urtero, eta, ondorioz, ohikoa da autonomia erkidegoek haien txertaketa-egutegia egokitzea bakoitzaren ezaugarrien, egituren eta baliabideen arabera.

Txertaket en Aholku Batzordeari entzun eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-agintaritzak bertako txertaketa-jarraibideak zehaztu ditu, ekitaldi bakoitzerako, eta baita Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluak ezarritako txertaketa-egutegi komun en barne hartutako txertoak emateko adinak ere.

Txerto horiek guztiak eta horiek emateko aholkatutako datak –haurren txertaketa-egutegia, alegia– zein diren jakinarazten zaie pertsonal sanitario guztiei, aurretik ezarritako jarraibideen eta prozeduren arabera, erizaintzako pertsonalak eman ditzan.

Aipatu haurren txertaketa-egutegia, txerto horiek emateko protokolo eta prozedurekin batera, herritar guztientzat eskuragarri dago Osasun Sailaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian, herritarrek gardentasun handiagoa eta informazio gehiago izan dezaten; hala, Osasun Sailak uste du egutegi hori formalki eguneratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea onuragarri dela bai egutegia bera zabaltzeko eta bai txertoak ematea ohiko bihurtzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluetan xedatuarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko haurren txertaketa-egutegiaren eguneraketa argitaratzea, agindu honen eranskinean datorren bezala.

2017ko urtarrilaren 27a, ostirala

Bigarrena.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariari ahalmena ematen zaio jarraibide zehatzak emateko agindu hau zabal dadin osasuneko profesionalen artean eta, oro har, herritarren artean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 17a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2017ko urtarrilaren 27a, ostirala

ERANSKINA

2. hilabete	4. hilabete	6. hilabete <small>2017a baino lehenago jalotakoak</small>	11 hilabete	12 hilabete	15 hilabete	18 hilabete <small>2017a baino lehenago jalotakoak</small>	4 urte	6 urte	10 urte <small>2017a baino lehenago jalotakoak</small>	12 urte	16 urte
B hepatitis	B hepatitis	B hepatitis ¹	B hepatitis	Elgorria	Barizela ²		Elgorria		Barizela ⁴	Papiloma ⁵	
Difteria	Difteria	Difteria ¹	Difteria	Errubeola		Difteria ¹	Errubeola	Difteria			Difteria ⁶
Tetanosa	Tetanosa	Tetanosa ¹	Tetanosa	Hazizuria		Tetanosa ¹	Hazizuria	Tetanosa			Tetanosa ⁸
Kukutxeztula	Kukutxeztula	Kukutxeztula ¹	Kukutxeztula			Kukutxeztula ¹		Kukutxeztula			
Poliomielitisa	Poliomielitisa	Poliomielitisa ¹	Poliomielitisa			Poliomielitisa ¹	Barizela ²	Poliomielitisa ³			
Haemophilus influenzae b	Haemophilus influenzae b	Haemophilus influenzae b	Haemophilus influenzae b			Haemophilus influenzae b					
	C meningokokoa			C meningokokoa						C meningokokoa	
Neumokoko (konjugatua)	Neumokoko (konjugatua)		Neumokoko (konjugatua)								

1.– 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago sortuak (hexabalentea: DTPa-VPI-VHB+Hib 2, 4 eta 6 hilabeterekin, eta pentabalentea: DTPa-VPI-Hib 18 hilabeterekin).

2.– 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuak.

3.– 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuei poliomielititis dosi bat emango zaie DTPa-VPI txerto konbinatu batekin.

4.– 2015. urtea baino lehenago sortuak, soilik txertoa hartu ez badute eta gaixotasuna pasa ez badute. Bi dosi: bigarren dosia, lehenengoa eman eta hilabetera.

5.– Neskei bakarrik. Bi dosi: bigarren dosia: lehenengoa eman eta 6 hilabetera.

6.– Gomendatzen da oroitzapeneko dosi bat jartzea, 65 urterekin.